

# Palestinaren alde egotearen esanahia eta inplikazioak



**ANE ABLANEDO LARRION**  
IRAKASLEA

**P**alestinan gertatzen denaren kontra egotea ez da zaila. Halako bortizkeriaren aurrean askok ikusten dugu hori sarraski bidegabekoa dela, baina hori sentitzea hain da gauza berezkoa, non ia ez duen esanahi esanguratsurik. Munduan bakea nagusitzearen nahiarekin ere antzeko zerbait gertatzen da, oso zilegi dela desioa, baina inor ez dagoenez esplizituki gerraren alde eta bakearen kontra, ezer gutxirako balio duen aldarri neutro huts bilakatzen dela.

Gatazka baten kontra egote hutsa ez da aski, eta ez da guztiok bat egiteko nahikoa baldintza, gatazkaren arrazoiak eta soluzioak zein diren arakatzeko delako benetan egin beharreko ariketa, analisi politiko horren araberrako jarrera koherentea hartzearekin batera. Baina noski, hor bukatzen dira bake-aldarri aseptikoen inguruko adostasunak, eta hor gelditzen da agerian halako batasun antzuen hutsaltasuna.

Munduan elkarbizitza baketsua eta iraunkorra nahi duenak, munduan giza-eskubide oinarritzkoak indarrean ezar daitezela exijitu behar du, eta estatueta-ko agintariak behartu horiek oinarrian izango dituen politika demokratikoaren arabera joka dezaten. Baina giza-eskubideetan lehena eta funtsezkoena herrien autodeterminaziora da, eta horren urraketa, hain zuzen ere, munduan ankerkeria eta bidegabekeria gehienak eragiten dituen arazo sistematikoa. Bakearen oinarrian, herriek bere lurraldean libre bizitzeko duten eskubidearen errespetua dago, atzerriko inbasio eta okupaziorik gabe.

Palestinaren alde antolatutako elkartasun orokor honetan badi-ra kirrinka egiten didaten hainbat kontu. Hasteko, Palestinako genozidio krudela salatzen harago, benetako arazoa den okupazio-erregimena litzatekeela benetan salatu beharrekoa, jatorrian dagoen inperialismoa seinatuz eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatuz. Baina noski, auzia hala planteatzeak inplikazioak ditu. Palestinentzat eskatzen dugunak munduko populu guztiendako balio izan behar duela, baita –eta bereziki hemen– Euskal Herriarentzat ere. Eta ez da egiten ari, ez da auzia koordenada horietan kokatzen ari.

Nola da posible Palestinentzat askatasuna eskatzen duten euskaldun askok, euskaldunon askatasun falta aipatu ere ez egitea, salatzen dituzten zapalkuntza, kolonizazioa eta etnozidioa Euskal Herriak ere pairatuko ez balitu bezala? Eta nola liteke horretan aritzea, gainera, gure nazioak jasaten duenari ez ikusierena egiten dionaren ondoan, edo are, mendearen hartuta gaituzten estatueta-ko partidu eta sindikatu guai bezain lotsaga-beekin ere? Palestinako estatua aitortzen duten baina euskaldunona bahitua duten horiekin berekin?

Ez dit balio auzi honen larritasunak denak batera aritu beharra eskatzen duelako baieztapenak, oinarritzko printzipio izan behar lukeelako gure menderakuntza ahalbideetzen duenarekin inora ez joatearen baieztapenak. Ezta bi gatazken bortizkeriaren intentsitate konpara



MAIDER LETURIAGA

ezinaren justifikazioa erabiltzea ere. Nazio zapaldu bakoitzak duelako bere historia partikularra, non tartekatuta pairatzen dituen ofentsiba bortitzeko uneak "lasaitasunezkoekin", zapaltzailearen komenientziaren eta zapalduaren jokabidearen arabera. Ze, zein litzateke gure egoera Saharak eta Palestinak bezala jokatura autonomiaren amua irentsi ez bagenu? Zein, Palestinarena edo Sahararena, gure moduan jokatu balute? ...

Gehiegi entzuten ari gara ezin dela Palestinan gertatzen dena gurearekin konparatu, eta seguru nago gure erresistentzia (gehiago) desaktibatze-ko beste trikimailu baten moduan erabiliko dela argudio hori. "Benetako" zapalkuntzen nolakotasunaz ohartuta (eta beldurtuta), zintzo onar dezagun *geurea*. Kasu. ●